


3. FUNTSEZKO SOZIOAK

Body Cloud-ek hainbat aliatu estrategiko behar ditu proiektuaren funtzionamendu egonkorra eta hazkundera bermatzeko.



1. Teknologia-hornitzaileak:

Kabinen hardwarea, software-sistema, aireztapen mekanismoak, bai eta aplikazio mugikorra sortu eta eguneratzeko ardura duten enpresak.

2. Instalazioen kudeatzaileak:

Aireportuak, gimnasioak, merkataritza-guneak eta hotelak. Haien baimenak eta lankidetzak komertzialak funtsezkoak dira kokapen fisiko egokia lortzeko.

3. Aromaterapia eta ongizate osagarrien hornitzaileak:

Kapsulen barruko esperientzia aberasteko ezinbestekoak dira: esentziak, difusoreak, argiztapen sistemak, musika terapeutikoak eta antzeko baliabideak hornitzen dituzte.

4. Mantentze eta garbiketa enpresak:

Kabinen egoera optimoa bermatzen dute, erabilera bakoitzaren ondoren higiene-maila altua eta segurtasuna mantenduz.

5. Influencer eta komunikazio kolaboratzaileak:

Markaren ikusgarritasuna handitzen dute sare sozialen bidez, erakargarritasuna sortzen dute eta bezero berriak erakarri.

6. Diseinu eta ergonomia espezialistak:

Kabinen barruko espazioa ahalik eta erosoena izan dadin, erabiltzailearen ongizatea maximizatzeko.

Aliatu hauek guztiek Body Cloud-en zerbitzuaren kalitatea, segurtasuna eta hazkunde komertziala indartzen dute.